



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO  
ETA JASANGARRITASUN SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Ingurumen Administrazioaren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración  
Ambiental

## Hondakin arriskutsuen negoziatzaileek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak

Hondakinen kudeatzailea den aldetik, honako hauetan xedatutako betebeharren araubidea bete beharko du: Ekonomia Zirkular Baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea, Hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretua, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua bai eta, beste araudi sektorial batzuen arabera, aplikatzekoak zaizkion preskripzio teknikoak ere.

Bereziki, honako baldintza hauek bete behar dira:

- 1- INGURUNETen **jarduera hasi aurreko jakinarazpena** aurkeztea, hurrengo estekan ezarritako zehaztapenen arabera, eta beharrezkoa den informazio eta dokumentazioa aurkeztuz:

[https://www.euskadi.eus/web01-a2inghon/eu/contenidos/comunicacion/s\\_comu\\_201811284521759/eu\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01-a2inghon/eu/contenidos/comunicacion/s_comu_201811284521759/eu_def/index.shtml)

Jakinarazpen horretan honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Hondakin arriskutsuen negoziatzaile gisa egin nahi den jarduera deskribatzen duen memoria.
- Hondakinen kudeaketarako proposatutako norakoak eta tratamenduak egiaztatzen dituen dokumentazioa
- Negoziatu nahi den hondakin bakoitzaren balio positiboa egiaztatzen duen agiria
- Fidantza bat sinatu izanaren **egiaztagiria**. Fidantza horren zenbatekoa hondakinen arloko finantza-bermeei buruzko martxoaren 22ko 208/2022 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritako formularen ondoriozkoa izango da.
- Gutxieneko 450.000€-ko zenbateko berrmatua duen **erantzukizun zibileko aseguruaren** ziurtagiria.
- **Ingurumen-arriskuen azterketa** egin izanaren erantzukizunpeko adierazpena.



- **Ingurumen-erantzukizuneko aseguruaren** ziurtagiria. Ingurumen azterketaren emaitza horrela adierazten duenean.
- 2- Jardueraren jakinarazpenean hondakin arriskutsuen negoziatzaile gisa adierazitakoa eta kontratuan onartutako klausulak eta baldintzak betetzea.
  - 3- Hondakin arriskutsuen negoziatzaileen jarduerak dakartzan betebeharrei erantzuteko eskatzen den fidantza, erantzukizun zibileko asegurua eta/edo ingurumen erantzukizuneko asegurua eguneratua mantentzea.
  - 4- Eskuratzen dituzten hondakinak tratatzeko eragiketa osoa eta egokia egiten dela ziurtatzea, eta hasierako ekoizleari edo hondakin horien beste edukitzaile bati agiri bidez egiaztatzea, lekualdaketaren identifikazio-agiriaren bidez.
  - 5- Artxibo elektronikoko bat edukitzea, hurrengo datu hauek kronologikoki jasoko dituenak: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga, hondakinak tratatzeko metodoa, garraio-bidea eta bilketa-maiztasuna. Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinekin negoziatzen bada, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak ere bete beharko ditu. Artxiboan, aurreko paragrafoan aipatutako agiri-egiaztapenean jasotako informazioa sartuko da.
  - 6- Artxibo kronologikoko informazioa 5 urtez gordetzea eta agintari eskudunen eskura uztea, ikuskapena eta kontrola egiteko.
  - 7- Urte bakoitzeko, martxoaren 1a baino lehen, aurreko urteko artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat bidaltzea, honako esteka honetan ezarritako txantiloi-formatuaren arabera:  
  
<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/01215/web01-tramite/eu/>
  - 8- Agintaritza eskudunei laguntza osoa ematea, azterketak eta kontrolak egiteko, informazioa biltzeko, laginak hartzeko, dokumentazioa egiaztatzeko eta beren eginkizuna betetzeko beste edozein eragiketa egin ahal izateko.